

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 4ko 55/2026 Foru Dekretuak laburpena. 2025-2026 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola Programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeei foru diru-laguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. BDNS (Identif.): 910769.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/910769>).

Lehena. – Erakunde onuradunak

- Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak eta euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta kirol klubak, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta/edo udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoak edo udal fundazio publikoak ere, baldin eta 2025/2026 denboraldian Bizkaian honako jarduera hauetakoren batean parte hartu badute.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak edo euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta klubak ere, baldin eta Araba edo Gipuzkoako eskolako kiroleko jardueretan parte hartzen badute eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailaren baimena badute. Entitate onuradunak izango dira, baldin eta eskola kirolaren programetan barne hartutako lehiaketako jardueraren batean parte hartu badute, hurrenez hurren, Araba edo Gipuzkoako foru aldundietan.

Bigarrena. – Xedea

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 5eko 55/2025 Foru Dekretuaren babespean 2025/2026 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzeagatik diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena. – Oinarri arautzaileak

Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, foru diru-laguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. Diru-laguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2025/2026 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeei. Jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 5eko 55/2025 Foru Dekretuak arautzen ditu.

Laugarrena. – Zenbatekoa

Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2026. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga 572.699,70 eurokoa da.



Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hamabost (15) egun naturalekoa izango da, Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2026ko ekainaren 4an. —Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Leixuri Arrizabalaga Arruza